

A young man with dark hair, wearing a brown t-shirt with a white graphic and dark pants, is crouching on a bed of straw in a barn. He is looking towards the camera. In the background, there are several sheep in a wooden enclosure, a large hay bale, and a window showing greenery outside. The barn has a corrugated metal roof.

ARTZAINZARI EUTSIZ,
LANDA EREMUA
IRAUNARAZIZ

PRINTZAK GONBIDATZEN ZAITU...

IKASTURTE BERRIRA!

Irailarekin batera Printzara ere hasiera berri bat dator. Buruari bueltaren bat eman badiozu Printzan zerbait egiteko, gerturatu! Bertan antolatu den zerbaitek interesatzen bazaitu, etorri! Edonolako hartu-eman aukerarik buruan baduzu, animatu! Hurrengo bilera irekia urriak 6, 17:00etan egingo dugu, ez duzarik egin eta etorri!

*Edozertarako, idatzi larraungoprintza@gmail.com helbidera!

Hona hemen oraingoz martxan jarriko ditugun lan ildo edo ekintzetako batzuk:

- **Baratze lan taldea.** Lurra lantzen, teknika biologiko eta ekologikoak erabiltzen... ikasi eta baratzean bertan ekoiztako produktuak kudeatu. Ezagutza partekatzeke ekintzak ere egingo dira.

Hurrengo lan-taldearen bilera: urriak 7, 18:00ean.

- **Lan txikien tailerra.** Etxean gerta litezkeen arazo teknikoak konpontzen ikasi. Entxufeak, ur-ihesak, paretetako zulotxoak... bururatzen zaizkigun gauzak ikasi ditugu.

Urriak 17, 18:00etan: elektrizitatea, nola jarri entxufe bat?



- **Liburutegia.** Geroz eta liburu gehiago eta interesgarriagoak ditugu, elkarbanatzeko, ikasteko eta gozatzeko. Aldizkariak, teoria politikoa, eleberriak... denetarik dago. Ekarri etxean dituzun liburu interesgarriak eta hartu gustuko duzuna (ezer ekarri gabe ere har daiteke!). Ikasteko edo lanak egiteko aukera ere egongo da espazio honetan.

- **Formakuntza.** Ez digute erakusten benetan munduak nola funtzionatzen duen, beraz, gure kabuz antolatzea besterik ez dugu: errealitatea ulertu, errealitatea aldatzeko. Sistema kapitalistaren oinarriak, gizartearen antolaketa soziala, iraultza... elkarrekin ikasiko ditugu testu ezberdinetan eta eztabaidan oinarrituz.

Urriak 4, 18:30etan: Nola sortu zen kapitalismoa?

- **Etxebizitza.** Etxe hutsak eta jendea etxerik gabe. Bizitza osoa lanean, hipoteka ordaintzeko. Ez da kasualitatea oinarritzko eskubidea behar lukeen etxebizitza errealitatean hala ez izatea. Herriak husten eta hiriak betetzen, zer egingo dugu Larraunen?

Hurrengo deialdia: urriak 6, 19:00etan.

- **Otordu sozialak.** Baratzekeo produktuekin besteak beste, elkarriketa interesgarrien baitan harremanak sortu eta sendotzeko unea, hilero 3. ostiralean.

Hurrengo afaria: urriak 18, 21:00etan.

Aurretik, 18:00etan: "Pasta nola egin?" tailerra.

Deialdiez eta ekintza ezberdinez informatu nahi izanez gero, irakurri kalean jarriko ditugun kartelak, begiratu sare sozialak (Twitter, Instagram edo Facebook) edo sartu Whatsappeko informazio taldean. Nola?

1. Idatzi "<https://chat.whatsapp.com/C8FUD-Wsx2zU1wxDLpe1Rvp>" mezua zure lagun bati eta esteka sortuko da.

2. Klikatu esteka horretan eta zuzenean sartuko zara Whatsappeko taldean.

Zure argi izpiak osatuko du Printza!

Zure iritzia bidali nahi badiguzu idatzi maillpe@labrit.net-era hilaren 20a baino lehen.



ASEGURU AHOLKULARIAK

Zure ondarea eta segurtasuna babesteko modu bakarra behar bezela aseguratua egotea da

- ▶ aseguruak@aseguruak.eus
- ▶ 943 65 22 20
- ▶ Korreo Kalea 7-baxua 20400 Tolosa



NEKAZARI, S.L.

Kubota
STIHL

Olagain. Mugiro. Nafarroa
Tel.: 948504128
Fax: 948504377
nekazarisl@hotmail.com



BIDEGO X JATETXEA

Jaunartzeak
Ezkontzak
Ospakizunak
Enpresa ekitaldiak

Usabal Kiroldegia
20400-TOLOSA 943 577 573
info@bidegoxo.com



05 BERTSO BERRIAK

06 ELKARRIZKETA: Mikel Satrustegi.

10 MOKOKA

11 KUXKUXEAN: Urriko zorion agurrak.

12 BATZARRE

14 LUZE ETA ZABAL

16 ERREPORTAJEA: Biogalaxy.

20 KULTURA

23 KIROLA

26 HITZ ASPERTUAN

31 KONTU TXIKIAK

• MAILOPE DOAN BANATZEN DA HONAKO HERRIETAN:

Albiasu, Aldatz, Alli, Arribe, Arruitz, Astitz, Atallu, Azkarate, Azpirotz, Baraibar, Betelu, Errazkin, Etxarri, Gaintza, Gorriti, Intza, Iribas, Lekunberri, Lezaeta, Madotz, Mugiro, Oderitz, Uitz eta Uztegi.

• ARGITARATZEN DU:

Mailope Kultur Elkarteak.
L.G.: NA 719/93
Mailopek ez du bere gain hartzen bertan adierazitako iritzi eta esanen erantzukizunik.
issuu.com/mailopealdizkaria

• ERREDAKZIOA:

Agurtzane Altuna, Urko Aristi, Mikel Hernandorena, Arantxa Mikeo, Ainhoa Beraza eta Andoni Tolosa.

• ARGAZKIAK:

Labrit, J.A. Garaikoetxea, Ricardo Bosch, Errigora, Maider Agirrebarrena, Larraungo Pilota Elkarteak, Biogalaxy, Printza, Lorea Lasarte, Sugoi Etxarri eta Nere Iriarte.

• PUBLIZITATEA:

Labrit Multimedia - 948 210 103 - mailope@labrit.net.

• MAKETAZIOA: Araitz Amatria.

• TIRADA: 1.600 ale.

Nafarroako Gobernuak, eskualdeko Udak, Kontzejuak eta bazkideek babestutako aldizkaria.

Nafarroako  Gobierno de Navarra

LABRIT
MULTIMEDIA

Intzako Txomin Otermin Pellejero irailaren 21ean hil zen 84 urte zituela.

Bere omenez...

TXOMIN GURE ARTZAINA

1935eko uztailaren 11n jaio ziren Txomin, Intzeko Martienen. Lau senidetan hirugarrena.

Bizitzan zehar basoan aittue, Ameriketako artzain egona eta Intzera itzultzean bizi artzaintzari eskaini ziozuna.

Zure inguruen beti eon die ardik eta txakurrek alde batera zein bestera. Bizi hontan eman dozo pauso sendo eta segurua, hitz geldo baino trinkoak eta beti izan due esanahi zehatz bat. Patsadaz bizi izan zara Txomin.

Udarako hilabetek Aralarko txabolana igarotzen zenittun, zure leku kuttunean eta, udazkenarekin batera, ardik hartu eta etxerako bidean jartzen zinen negua pasatzera. Intzeko Martieneko atek zein Aralarko txabolakoak beti zabalik izaten ziren eta gusto haundiz, ongi etorri batekin hartzen gintuzun. Mendiko artzain gazta eta ardoa ez ziren inoiz falta izaten mahai inguruko hizketaldiekin batera. Zure irribarra, zure tertulitxoak beti izango ditugu gogoan.

Fededuna, San Migel zalea, eta bere urteroko bixiten, bertan izaten ziren beti. Aralarko Igaratzen, aingeruaren bixitan ere bertaratzen ziren urtero. Eta nola ez, Artzain Egunean ez zinun hutsik egiten.

Pestazalea izan zara, jende arteko gizona; haur, gazte zein heldurekin bazinun harremana.

Abuztuko egun batez, Intza eta inguruak albiste ilun batekin, aho zabalik utzi gintuzun. Geroztik, hilabete oso baten zure izena denon ahotan aipatua izan da, zure osasunaren galdez. Bizkor ibili izan zara eta demostratu duzu baduzula indarra, baina azkeneko borroka hau gainditzeko izan da zaila.

Irailaren 21ean, azken arnasarekin batera denok izan ginun nahigabea.

Aralar eta Intzako Txomin artzaie agurtu zinen.

Mila esker denagatik, bidai on eta egun haundira arte.



Joxe Mari Zabaleta

**M. Angeles
Urrizalki**

**iragarkiak,
berriak,
eskelak...**

**Diario Vasco eta Diario
de Navarrako
Korrespontsala**

**948513056
699179437**

Atabal
okindugia

Era askotako
ogiak eta gozoak

Etxez etxe
banatuko dugu

Ogia enkargatzeko...
948513151

MAITE
harategia

**BERTAKO
HARAGIA**

Txistorra, txorizoa,
saltxitxak,
sukaldatautako platerak.
Etxera eramateko
zerbiltua ere eskeintzen
dizugu.

Antigua Kalea N°7
31890 BETELU

Telf: 948 51 30 88

maiteharategia@hotmail.com



HONDAKINAK PILATZEN

Herritarrak kezu agertu dira hilabete honetan hondakinen bilketarekin izan diren arazoekin. Mendialdean Mankomunitateak ohartarazi du, bilketa kamioietan zenbait matxura izan direla eta langileen zenbait baja ere izan direla. Horregatik barkamena eskatu die herritarrei sortu-tako endredoengatik.



BERRITZE LANAK BETELUN

Beteluko zenbait kaletan berritze lanak egiten ari da Beteluko Udala. Hori dela eta, Okindegiaren inguruko kaleak datozen asteetan itxita egonen dira. Herriko ur horniketa eta saneamendua egiten ari dira, besteak beste.



MUGITU, DANTZATU, ADIERAZI ETA IZAN

Urriaren 7, 14, 21 eta 28an *Río abierto* mugimendu adierazkorraren lau saio eskainiko dira Le-kunberrin. Oskar Estanga arituko da bideratzaile. Animatu eta eman izena: oskarestangadantza@gmail.com edo 686 427 087 mugikor zenbakia-
ren bitartez.

bertso berriak Mailoperi jarriak: Gorka Garmendia "Altzo" (Gaintza)

*Uda garaien bada
lana baserritan,
gogoa biño gehio
bai bintzet sarritan,
batza, belar, eur, garo
edo ongarritan,
bartzarrak txukun nahi ta
beti komeritan.*

Doinua: Azienda bat dago.

*Maiatza heltzen denean
dena da oparo,
ordutik mendin gustoa
azindak luzaro,
bela elurrek han jo
biño lehenago,
bildu ta ikuilun sartzen
hasi beharra dago.*

Hurrengoarentzako puntua

Urtetiken urtera
erle gutxiago.

Oinak:

Etxea, kaltea, hobe, jabea.



“Gazteak ere artzain izatera animatuko nituzke!”

Mikel Satrustegi Perez alliarak 19 urte dauzka eta osabaren ardiak hartu berri ditu. Betidanik argi izan du Allin artzaintza-rekin jarraitu nahi zuela. Alliko Argainean 400 ardi dauzka eta aurki egungo baldintzetara egokitutako nabea eraikiko du.

Umetatik ardi tartean ibili izan zara...

Bai, ikasle garaian ere asteburuero hona etortzen nintzen. Gustuko izan dut beti eta etxeko ardiekin aurrera jarraitu nahi nuen. DBH bukatu ondoren, Nekazaritza eta abeltzaintza ikasketak egin nituen.

Osaba Bixenteren ardiak dira hartu berri dituzunak...

Bai. Aitonak erosi omen zituen lehen ardiak eta osaba Bixente eta Kalisto ibiltzen ziren artzain. Baina Kalisto hil eta gero, nire aita laguntzera etortzen zen eta ni ere berarekin. Osaba asko poztu zen nire erabakia-rekin. Nik ikasketak amaitu bitartean berak eutsi dio eguneroko martxari

“Ardi hauek handiagoak dira morfologikoki eta esne gehiago ematen dute”

eta orain, joan den udaberrian bera erretiratu egin zen eta geroztik nik hartu dut ardura.

Zenbat ardi dituzu momentu honetan?

400 buru inguru.

Eta zein arrazatakoak dira?

Lacaune arrazakoak dira, frantsesak. Aitonak latxak erosi zituen eta gero, osabak israeldarrak ekarri zituen. Baina mendian eta kanpoan ibiltze-ko ez ziren onak, ez zuten belarra jaten eta pentsua ematen ibili behar izaten zuten. Gastu handia zen. Orduan Frantzian arraza hau ikusi eta probatzeko ekarri zituen orain dela hamar bat urte.

Itxuraz nahiko ezberdinak dira latxarekin edo sasi-ardiekin alde-ratuta...

Bai. Hauek handiagoak dira morfologikoki eta esne gehiago ematen dute. Latxak uda partetik udazken aldera esnea emateari uzten diote, baina hauek ez dute etenik, urte osoan aritzen gara jezten.

Oraingoz baserrian bertan duzu ukuilua, ezta?

Bai. Oraingoz bai, baina nabea egiteko asmoa daukat. Paperak martxan ditut eta ea udaberri alderako erakitzen hasten naizen. Esplotazioan titular berri gisa jartzeko ez zidaten hemen jarraitzen uzten, industriak eskatzen dituen gaur egungo baldintzak betetzeko instalazioak egokitzea behartzen gaituzte.

Mikelek 400 buru inguru dauzka gaur egun Alliko baserrian. Arg: Labrit



Eta etorkizunean artaldea handitzeko asmoa duzu?

Oraingo ez, lehendabiziko urteetan kopuru bera mantentzea da nire asmoa eta behin ukulu berria jartzearekin eta ongi egokitzen naizenean agian pentsatuko dut gehiago jartzea. Aukera izanen nuke, nabeak etorkizunean buru gehiago jartzeko aukerarekin diseinatu delako.

Nolakoa izaten da zure egunerokoa?

Goizeko zazpi eta erdiak aldera ukulura etortzen naiz ardiak jeztera. Gaur egun dena mekanizaturik daukagu. Ez da eskuz jezten. Ondoren kanpora ateratzen ditut, belazeetako belarra jan dezaten. Eta gero, ganbeletan pentsua eta belar lehorra jartzen dut, iluntzean berriro bueltan ekartzen ditudanerako prest izan dezaten. Beste zereginik ez badut, goizeko hamaikak aldera amaitzen dut eta ondoren, arratsaldeko seietan berriro etortzen naiz bigarren jertzialdia egitera.

Baina tarte horretan bestelako zereginak ere izanen dituzu...

Bai, beti izaten da zerbait. Kanpoan dauden ardiak begiratu, bildotsei kasu egin. Baten bat hanketako minnez badago hura sendatu etab.

400 buru horietatik erdiak dituzu produkzioan...

Bai, baina denboraldiak izaten dira. Orain gutxi jezten gabiltza. Hemendik bost hilabetera gehixeago izanen dira. Udan, kanpaina baxuan, bi ordu behar izaten ditut jetzi eta jeztokia garbitzeko. Baina, esne gehiago ematen duten denboraldian, ia lau ordu. Lau ordu goizez eta lau arratsaldez.

Urtean zenbat umatzealdi izaten dituzue?

Bost. Gehienak bi ume izaten dituzte,



baten batek baita hiru ere. Bi diren kasuetan, askotan amak ez ditu biak onartzen, bat baztertu egiten du, eta halakoetan gainean egon behar izaten da bere ondoan hartzen duen arte.

Zein teknika erabiltzen duzue horretarako?

Lehen osabak soka batekin lotzen zituen umeak amaren hanketara. Gaur egun, nik departamentu modukoak egiten ditut hesiekin. Artaldetik bereizi egiten ditut ama eta bi umeak. Hor hiru edo lau egunez elkarrekin egotearekin aski izaten da normalean. Batzuek agian astebete behar dute eta beste batzuek ordu batzuk baino ez.

Umatze garaian gaez ere adi egon behar, ezta?

Bai. Hogei egun izaten dira, baina nahiko gogorak. Gauetan ere askotan hemen egon behar izaten dut. Baten bat jairoz gero hura berehala bereizteko, umea errapean jartzeko etab.

Zer nahiago izaten duzu ume bakarra izatea hala binaka etortzea?

Bakarra hobea izaten da. Bat egiten dutenean normalean handiagoa



"Bere alde onak ere baditu lanbide honek eta hori askok ez dute ezagutzen"



izaten da eta, indartsuagoa. Bi etortzen direnean beti txikixeagoak eta ahulagoak izaten dira. Gainera arraza honek ez du kalparrik izaten jaiotzerakoan. Ez da latxa bezala. Hauek ez dute ilerik izaten eta kontu handia eduki behar da. Neguan batez ere txoko hotzenak edo haizeak jotzen duen lekuak saihestu behar dira. Ukuiluan loteka antolatzen ditut eta gero, handitu ahala nahasten joaten naiz.

Garai bateko artzainen modura zu ere ardi bakoitza begi-kolpe batez identifikatzeko gai zara?

Batzuk bai, arrazoi bategatik edo besteagatik begitan hartzen dituzulako, baina askotan belarrarian dararmaten zenbakiari begiratu behar izaten diet.

Nora saltzen duzu esnea?

Erronkarira saltzen da esnea,

Erronkari Gazta egiteko. Astean hirutan etortzen dira esnea biltzera, igande, astearte eta ostegun gauean. Esnearen zati bat Arraztio Esnekiakera saltzen dugu.

Arazo berezirik izaten dute?

Ez. Umatze garaia zaintzea da garrantzitsuenak. Eta garbitasun handia mantendu behar da beti. Esnea ahalik eta kalitate handienarekin ir-teteko hemendik. Hilabetean lau edo bost aldiz esnearen laginak hartu eta analizatzen dituzte. Urtean behin Irunberritik artiola moztera etortzen dira. Arraza honekin behin moztarekin aski da.

Gazta zeuk egitea ez dago zure asmoen artean?

Pentsatu izan dut, baina bakarrik egotearekin. Orain aitaren eta osabaren laguntza daukat baina etorkizunearan... Gaur egun jarriz gero egingo nuke, baina etorkizunean gazta egin ahal izateko langile bat edo bi hartu beharko nituzke eta horretarako kontu asko atera behar dira. Momentuz esnea saltzearekin aski!

Sendagai asko ematen dizkiezu?

Ez, guk oso sendagai gutxi erabiltzen ditugu. Hanka-minak direnean, horiek sendatu eta desinfektatzeko. Axuriei jaio berritan txertoa jartzen zaie indartzeko bitamina batzuekin eta dauden bakterietatik babesteko. Txerto hori guk geuk jartzen diegu. Ez da arazo handirik izaten he-

Bar Ainhoa

- Razioak
- Pintxoak
- Ogitartekoak
- Plater konbinatuak
- Gosariak **Tostadak mermeladarekin** eta bertan eskuz egindako madalenak, erroskilak, croisant-ak eta napolitanak.

Astelehenetik ostiralera goizeko 7:00etatik aurrera
Aralar 15, 31870 Lekunberri (Nafarroa)
948 504 077 · 639 778 851 · aitziberalf@hotmail.com

German Lasarte
ARBEONDO
HARATEGIA
Aralar kalea 9
Lekunberri
948504157

CONSULTORIO VETERINARIO, S.L.
HIRUROK S. VETERINARIOS

Telefono zenbakia eta faxa:
948 50 43 31
Lekunberri

**aitz
berri**

edertasun
zentroa

Lako beikoa
Betelu 31890
948 513 083
696 732 290
aitzberri@hotmail.com

men. Batzuetan eguraldi aldaketa bortitzak daudenean, biriketako gaixotasunen bat har dezakete eta halakoetan likido bat ematen zaie ahotik.

Osabak bezain ilusio handiarekin hartu zuten zure erabakia in-guruko guztiek?

Aitak eta amak bai. Amak ikasten jarraitzea animatzen ninduen eta aitak berriz ikasten jarraitu nahi ez banuen lan egin beharko nuela. Askori pasa ohi zaien moduan niri ere ez zitzaidan ikastea gustatzen eta hemen gelditzea erabaki nuen. Lagunek zorrotza nagoela esaten didate, lan hau oso esklaboa dela. Egunero lan egin behar dela eta oporrik gabe ia...

Eta zuri zer iruditzen zaizu? Horren lotua al da lana?

Egia da asteburuan parranda eginez gero, goizean berdin-berdin etorri beharra duzula ardiak jeztera. Baina ni txikitatik hemen hezi naizenez eta hau bizi izan dudanez, ez zait horrenbesterako iruditzen. Batzuetan egun osoa hemen pasa arren ez zait horren gogorra egiten.

Bere alde onak ere baditu...

Bai, nire kasuan familiako esplotazioa izanik, ez dut nagusirik eta ni neu antolatu naiteke. Ardiak egunero jetzi behar dira, baina badira beste zenbait lan nahi bezala antolatu ditzakezunak.

Nola ikusten duzu zuk artzaintza- ren etorkizuna?

Ibili izan naiz pixka bat inguruko ibarretan eta gazte gutxi ikusten ditut, gehienek nahiago dute lantegietan lan egin, zortzi orduko lanpostu batean eta nahiko opor egun izan. Nirekin batera nekazaritza eta abeltzaintza ikasketak egin zituzten asko ere ondoren lantegian hasi dira lanean. Gaur egun ezerezetik zeure ardiak jartzea ez da erraza. Gobernuak diruz pixka bat lagundu arren, pentsua oso garesti dago eta esnea oso gutxi ordaintzen dute.

Zure kasuan, hemengo belazeekin moldatzen zara?

Bai, guk Alliko eta Iribasko lurak erabiltzen ditugu eta ditugun ardi kopuruarentzako aski izaten da. Belarra guk geuk egiten dugu eta kanpoan pentsua eta ahotza ekartzen dugu. Belarrak ekainetik abuztura bitarte egiten ditugu eta moldatzen gara. Batzuetan herriko bizilagunen batek ere laguntzen dit. Garrantzitsua da bizilagunekin ongi moldatzea, bestela jai dago! [Kar, kar, kar].



Mikelen ustez umatze garaia zaintzea oso garrantzitsua da arazoak ekiditeko. Arg: Labrit.

Baina aurten adibidez oporrak izan al dituzu?

Aurten ez naiz inora joan, baina aitak bere lanpostuan hilabete oporrak izan dituenek, tarte hori aprobetxatu dut lagunekin gelditzeko eta parranda egiteko.

Beraz, zuk gazteak artzain izatera animatuko zenituzke?

Bai, bai, nahi izanez gero hurbildu daitezela nahi dutenean, nik hemengo martxa erakutsiko diet. Bere alde onak ere baditu lanbide honek eta hori askok ez dute ezagutzen. Eta artzaintzarik eta abeltzaintzarik gabe, gure barrutiak eta mendiak guztiz zikindu eta galduko dira. Gainera, herriari bertan bizitzeko aukera ematen duen lanbidea da.

Apustu etxeak



●● Mikel Hernandez

Sportium, Reta, Betway, Codere... Hemen inguruko tabernetan nahiz telebistan egunero ditugu, bai publikitate gisa bai makinaren bidez apustuak egiteko aukera ugari eskaintzen dutelarik. Dagoeneko fenomeno hau asko zabaldu da eta, esate baterako, futbol partiduetan oso ohikoa da jendea apustuak egiten ikustea. Telebistan futbol partiduen atsedendietan apustu etxe hauei buruzko publikitatea agertzen denean, beheko aldean izki txikiekin honakoa irakur daiteke: "18 urtetik gora. Joka ezazu seguru eta arduraz." Eta hemen dator, nire ustez, arazoa.

Izan ere, alde batetik, nabarmendu nahiko nuke Madrilen esate baterako, apustu etxeen kopuruaren ondorioz, jendea nazkatu egin dela eta pasa den maiatzean Getafen apustu etxeen aurkako pintadak agertu zirela. Moduak, nire iritziz, ez dira onenak, baina gero eta jende gehiago ikusten da joko hauetara biziaturik, gazte zein heldu. Eta azkenean, errotik moztu beharreko arazo baten aurrean gaudela deritzot, diru hori irabazten duten apustu etxeek ez dutelako egin dezaketean minean pentsatzen.

Bestetik, apustuen dinamikan neurririk gabe sartzea oso arriskutsua dela iruditzen zait. Eta are gehiago, apustu etxeek eskaintzen dituzten aukera ezberdinak ikusita: "Zein jokalarik sartuko du hurrengo gola?", "Zenbat gol izango dira bigarren zatian?", "Zein izango da emaitza?...". Errotzeko eta kontrola galtzeko modukoa, nik uste. Izan ere, nire ustez, nahiz eta kontrola duen jendea egon, badira apustu etxetara erabat kateaturiko pertsonak ere, eta pertsona batentzat horraino iristea amildegia izan daiteke.

Azkenik, futboleko talde batzuek beraien babesle nagusi gisa apustu etxe ofizialak dituzte, eta ez da, nire ustez, oso jarrera egokia, gaia dagoen bezala egonda behintzat. Zein da zure iritzia gaiaren inguruan, Pello?? Hurren arte!!!!




●● Pello Azpiroz

Izula Mikel, apustu etxeen auzia lehen lerroan jarri behar den arazo bat dela uste dut. Dirua modu azkar eta erraz batean lortzeko itxaropena saltzen dute, mota askotako eskaintzen bidez gutxien dutenei lapurtuz. Apustu etxe hauen ohiko bezeroak ez dira aberatsak, ohiko bezeroak langile klasearen parte dira. Horren adibide garbiena apustu egiteko soilik euro bat nahikoa dela da, edozeini apustu egiteko aukera emanez. Duela urte batzuk ludopata batek apustu egin nahi izanez gero, behartuta zegoen makina horiek zeuden tokira joatera. Gaur egun, dauden teknologia berriek ematen dituzten "erraztasunei" esker, edozein tokitatik egin dezakezu apustu eta mota askotako apustuak egin ditzakezu gainera. Batez ere hirietako langile auzoetan oso agerikoa da apustu etxeen kopurua nabarmen igo dela (Adb: Arrotxapean, Sanduzelain...).

Apustu etxeen iragarkiak bazter guztietan daude (kalean, telebistan, sare sozialetan, etab.), etengabe bultzatzen gaituzte "arduraz" apustu egitera. Arlo desberdinetako pertsona famatuak ageri dira (Sobera, Usain Bolt, Nadal, Pique, Jose Coronado...) iragarki hauetan, milaka eta milaka gazte ludopatiara bultzatuz. Futbolari dagokionez, Ligako talde guztien babesleak apustu etxeak dira, Errealaren kasuan izan ezik (bazkideei bozkatzeko aukera eman zitzaizen erabaki honen inguruan eta ezezkoa atera zen).

Pentsa dezakegu gure inguruan apustu egiteko makina jakin batzuk daudenez hemen ez daukagula arazo hori. Baina norbaitek jarri ahal du arreta gure inguruko zenbat gazte joaten diren ostatu batzuetan dauden makina horietara apustu egitera?

Arazoa uste baino larriagoa dela uste dut (aditu askok XXI. mendeko heroina dela diote) eta debekuen bidez errotik moztu beharko litzateke. Ezin daiteke onartu gutxi batzuk aberastea gutxien dutenen kontura. Apustu etxeak kanpora!!!





Ekaitz Eskamendi Alduntzin
Urriaren 6an, 13 urte.
Zorionak Ekaitz, ongi pasa zure egunean. Muxu bat atte, ama eta Aintzaneren partez.




Egoi eta Izarne Eskamendi
Urriaren 26an eta 28an, 9 eta 11 urte.
Zorionak bikote!! Oso ongi pasa zuen egunetan eta segi hain festazale!! Muxu handi bat aitatxo, amatxo eta Kaieten partez.



Haizea Aldaregia Balda
Irailaren 8an, 4 urte bete zituen gure etxeko bihurritxoak.
Ongi pasa izana espero dugu! Muxu asko politte Iraide, Aimar eta familia guztiaren partez!!



Jone Castrillo Cruz
Urriaren 23an, 11 urte.
Zorionak Jone!!!
Muxu haundi bat Atallutik!



Maia Navascues Martija
Urriaren 4an, 8 urte.
Zorionak Maia!
Muxu handi bat familia guztiaren partez.



Ibai Eraso Gorrotxategi
Irailaren 22an, 8 urte.
Lander Eraso Gorrotxategi
Urriaren 21ean, 10 urte.
Zorionak bikote! Askok gozatu zuen eguna eta muxu erraldoi bana etxekoaren partez... Muuuuak!!!

Urko Agirrezabala Valencia
Urriaren 8an, 3 urte.
Zorionak Kantauri itsasoko marrazo txikiari!!
Den-dena maite zaitugu!
Joar, Ekia, aita eta ama.



Arantxa Saigos Aristegi
Urriak 13.
Lekunberriko festetan ospatuko dugu zure urtebetetzea. 4 muxu pottolo zure seme ta senarraren partez. Eskerrik asko zaren bezala zarelako.



Gari Arraztio Estanga
Urriaren 3an, 3 urte.
Aiara Arraztio Estanga
Urriaren 27an, 6 urte.
Zorionak bikote!! Ongi pasa zuen egunetan.
Muxu haundi bana etxekoaren partez.

Arane Astiz Arangoa
Urriaren 17an, 4 urte.
ZORIONAK Arane!!! Egun polita pasa!! Muxu handi handi ta goxo bat etxekoaren partez!!!



Mailope aldizkaria zorion agurrak jasotzeko irrikan dago!
Idatziezaguzu mailope@labrit.net e-postara hilaren 20a baino lehen.



Lagunasesoría S.L.
Fiskala
Laborala
Kontabilitatea
Seguruak...

k/ Artzanegi, 2 Behea 31870 Lekunberri (Nafarroa) tel/fax 948 504 232
lagunasesoria@terra.es



SOTIL GARAJEA
BETELU
948 513 007
sotilgarajea@gmail.com



OKM
ABOKATUAK
Eukeni Celaya Zubieta · Mikel Iraola Sarasua
Arretxea, 1º, Alli. Tfnoa: 609 130 555

LARRAUNGO UDALAK AUTOKONTSUMOAREN ALDE EGIN DU EGUZKI PLAKEI ESKER

Larraungo Udaletxeko teilatuan instalatzen dabiltzan eguzki plakei eta bateriari esker udaletxeak eta osasun etxeak erabili ohi duten elektrizitatea %100 autokontsumozkoa izanen da hemendik aurrera. 25.000 euroko inbertsioa suposatu du, baina Nafarroako Gobernuak %65 diruz lagundu du. Eguzki plaka horiei esker sortuko den elektrizitate kopurua eta ekarriko duen aurrezte ekonomiko nahiz energetikoari buruz gehiago jakiteko aukera izanen da datorren urriaren 18an, ostirala, arratsaldeko 18:30ean Larraungo Batzar Aretoan eskainiko den hitzaldian. Larraungo Udalak Cederna Garalur Elkartearekin batera antolatutako hitzaldi horretan, Nafarroan bultzatu nahi den ekonomia zirkularra eta eredu energetikoa ere azalduko da eta Lizarragako mikro-sare energetikoaren esperientzia ezagutzeko aukera izanen da. Lizarragako Kontzejuan kontsumitzen duten guztia bertan ekoiztutako energia berriztagarria da. Josu Oreja (Larraungo Udaleko Zinegotzia): "Kontzeju txikietan ere ezinezkoa iruditzen zaigun arren posible da ongi antolatuz gero halakoak egitea. Lizarragako adibidearekin ikus dezakegu lortu daitekeela. Guk eguzki plaken proiektu honekin energia berriztagarrien eta autokontsumoaren aldeko pauso bat eman nahi dugu". Baina ez da azkena izanen. Azaroan esaterako, hondakinen kudeaketari eta kontpostari buruzko hitzaldia eskainiko da.

SENDABELARRAK IDENTIFIKATZEN

Bederatzi lagunek parte hartu zuten joan den irailaren 21ean eta 22an Lekunberrin egin zen sendabelarrei buruzko tailerrea. Lehenengo egunean, Silvia Aquerretaren laguntzarekin osasunerako interesekoak diren landareak identifikatzen ikasi zuten eta bigarren egunean berriz, ukenduen elaborazioan aritu ziren.



ANTSONEA, INOIZ BAINO HOBEA!



Zorte oneko dago Uztegi Antsona Gazta. Azken aldian merezi duen aitortza lortu baitu inguruko hainbat gazta lehiaketetan. Abuztuan, seigarren sailkatu zen Uharte Arakilgo Artzain Egunean egin ohi den Idiazabal gaztaren txapelketan. Eta irailean berriz, asteburu berean bi txapel eraman zituzten, Irurtzun eta Arakilgo VI. Ganadu Azokan egindako gazta lehiaketako txapela eta Zaraten antolatutako Aralarko I. Gazta Txapelketan ere lehen postua. Zorionak!

JOSU OREJA IZENDATU DUTE CEDERNA GARALUR ELKARTEKO ESKUALDEKO ORDEZKARI

Joan den hilean berriro zen Cederna Garalur Elkarte Zuzendaritza Batzordea. 2023ra bitarte, Josu Orejak ordezkatzeko ditu Araitz, Betelu, Lekunberri eta Larraun Zuzendaritza Batzorde horretan. Bestalde, Patxiku Irisarri izendatu dute lehendakari, Maite Iturreren postua hartuz. Gurean, Josuk Natalia Azkonari hartu dio lekukoa eta Larrauni dagokionean argi dauka: *"Orain arte elkartean Larraungo Udala nahiko pasibo egon dela ikusi dugu eta guk argi dugu garapenaren aldeko apustua egin nahi dugula eta buru-belarri horretan sartu nahi dugula gure herri txiki hauei bultzada emateko"*.



LARRAUNGO ERRALDOI ETA KILIKIEN KONPARTSAK MECNA ZIGILUA JASO DU

Joan den abuztuaren 24an Larraungo Erraldoi eta Kilikien Konpartsako lehendakaria den Joseba Ordokik erraldoiak eraikitzen hasteko kontratua sinatu zuen. Aitor Calleja izanen da konpartsa osatuko dute erraldoiak egiteaz arduratuko dena. Markalain duen tailerrean izan ziren hain zuzen ere konpartsako kideak Aitorrek egindako bestelako lanak ezagutzen.

Proiektuak aurrera jarraitzen duen arren, diru-bilketa bat jarri dute martxan erraldoi eta kilikien elaborazio gastuei aurre egiteko. Beraz, edonork bere aletxoak jarri nahi izanez gero, Laboral Kutxako kontu honen bitartez egin dezake bere ekarpena: ES14-3035-0119-28-1190014259.

Gainera, Nafarroako Kultur Batzordeak kultur intereseko proiektua izendatu du, MECNA zigilua aitortuz. Horri esker, enpresa pribatu nahiz partikularrek egindako edozein diru-ekarpenek etekin fiskalak izanen ditu. Beraz, diru-ekarpena eginez, gero gogoratu gurekin harremanetan jartzeaz zure egiaztagiria jasotzeko.

Bestalde, konpartsako kideek larraundarren laguntza eskatu dute taldea osatzeko: "Gure ideia gustatzen bazaizu eta erraldoiekin ongi pasatzeko gogoia baduzu jarri zaitez gurekin harremanetan. Denbora gutxi barru dantza ezberdinen entseguiekin ekingo diogu!".



Gorritiko Gaztelua

Sta Barbara ermitaren inguruaren garbiketa

Urriak 19 - 9:00 etan - Gorritiko Plazan

ENPRESA ETA SUSTATZAILEENTZAKO IKASTAROAK

Cederna Garalur Elkarteak Plazaola Partzuergo Turistikoarekin batera, enpresa eta sustatzaileentzako hainbat ikastaro antolatu ditu.

Urriaren 14an (09:30-13:30) eta urriaren 28an (09:30-11:30) Enprendimendu Tailerra eskainiko da. Dagoeneko **negozio ideia** bat dutenei zuzendutako tailerra da honakoa. Gainera enpresa-ekintzaile handiak izan direnen adibideak gertutik ezagutzeko aukera izanen da.

Bestetik urriaren 15ean eta 17an (10:00 -13:00) Jendaurreko arretari buruzko ikastaroa izanen da, "Bezerao nola zaindu, salmenta on bat ahaztu gabe". Ikastaro hau batez ere landetxeak eta bestelako establezimenduetan dagozuten dago zuzendurik.

Azaroaren 11n (10:00 – 14:00), "Nola antolatu zure agiriak zerga-betebeharrak betetzeko" ikastaroa eskainiko da.

Bestetik datak oraindik zehazteke badaude ere, urriaren eta azaroaren zehar beste bi ikastaro ere eskainiko dira: "Nola egin ogasunarekin egin beharreko tramiteak online ziurtagiri digitalaren bidez eta ordainagiriak diseinatzen ikastea" eta "Produktu eta Zerbitzu Turistikoaren Komertzializazioa".

Gogoratu enpresa bat sortu nahi izanez gero, Cederna Garalur Elkartearen enpresa plana sortzen eta administrazio izapideekin laguntzeaz gainera, behar duzun aholkularitza zerbitzua eskainiko dizutela.

Ikastaroetan izen emateko:

Plazaola Partzuergo Turistikoak: 948 507 205 / plazaola@plazaola.org

Cederna Garalur: 617 609 328.

“Pobrezia araua da; ongizatea, salbuespena”

Duela hiruzpalau aste *publico.es* egunkari digitalean irakurri nuen albiste batek honako lerrook idaztera animatu ninduen. Eta baita nire egoera analizatzen, nire bizilagunena, “paperik gabeko” etorkin gisa bizitzera kondenatuta dauden hamai-ka gizabanakoena.

Halaxe zioen titularrak: *“AEBk diru-sarrera baxua duten etorkin legalak kanporatzeko lege bat inposatu du”*. Aurrerago: *“Washingtonnek zehaztuko du etorkina “karga publikoa” bihurtu den”*. Hau da, *“bizitzeko funts publikoaren laguntzaren beharra”* duenak kanporatua izateko aukera gehiago edukiko ditu, laguntza publikorik behar ez duenak baino: *“Egoiliar txartela edo bisa modu legalan lortu arren, legeak arriskuan jarri ditzake bere ekonomia gobernuaren laguntzarik gabe mantentzeko zailtasunak dituen herritarrek”*, dio artikulak.

Kiratsa darion arrazakeria, klasismoa eta xenofobia miserablea da AEBetako presidentea den Donald Trumpek eta bere taldeak zabaltzen duen eta milioika pertsonen atzetik jarraitu eta defendatzen dutena.

Diruak mundua mugitzen duela aski ongi dakigu. Ameriketako Estatu Batuak hiperpotentzia bihurtu direnik ere ez dugu dudarik. Kontzientea al gara horrek duen pisuaz? Haiek dira kontrol ekonomiko, komertzial, sozial, militar eta kulturala dutenak.

1991. urte-
tik, SESB erori



zenetik, dira munduaren jaun eta jabe. Are gehiago, nazioarteko krisialdi eta gatazketan Nazio Batuen Erakundearen papera arbuizatzen iritsi dira.

Hiperpotentziak, ordea, herritar orori garapen maila egokia bermatu diezaioke? Herrialdean 32 milioiren bizi-itzaropena 60 urtetik beherako da. 52 milioi analfabeto funtzionalak dira. 40 milioi ez dute osasun-estaldurarik edo laguntzarik. 45 milioi pobrezia-atalasearen azpitik bizi dira.

Ignacio Ramonet kazetariak *Guerres del siglo XXI* liburuan -gomen-dagarria oso- aipatzen duen esaldia dakarkizuet: pobrezia araua da; ongizatea, salbuespena.

Mende honetan, herrialde baten aberastasuna ez du lehengaien jabetzak eta produkzioak zehazten. Ezta herritarren kopuruak ere. Are

gutxiago herrialdearen hedadurak. Hortxe India, Pakistan, Brasil edo Nigeriaren kasuak. Ameriketako Estatu Batuak dira araua berresten duten salbuespena. Izan ere, arestian aipaturiko ezaugarriak desabantaila bihurtu dira egun.

Zerk egiten du herrialde bat aberats, orduan? Materia grisa deiturikoak, hau da, informazioak, jakintzak, ikerketak eta eraberritzeko ahalmenak.

“Amets amerikarra” diote. Bidean gelditzen dira asko, hesia zeharkatu ezinik. Hesiak ez du zertan fisioa izan, politikoa da. Eta horrek ia apurtezina egiten du. Bitartean, gainerako herrialdeek men egiten diote negozioak egiteko irekita dagoen leihoa itxiko duten beldurrez. Edo blokeo bat jasateko ikaraz. Kubarekin pasa bezala, Iranekin eta berriki Venezuelarekin.

Askotariko maitasuna

Kaixo irakurle. Ohartzerako berriz ere iritsi zait idazteko ordua. Batzuetan oso mantso eta bestetan ohartzerako pasatzen dira hilabeteak, urteak, bizitzak... Batzuetan gauzak beti berdin jarraituko dutela dirudi eta besteetan berriz ohartzerako aldaketa garrantzitsuak datoz... Bide honetan, aldaketa, egokitze eta osaketa garrantzitsuak datozela uste dut harremanen munduan, gure burua gehiago ezagutzen dugun heinean, gizarte errealitatea aldatzen doan heinean...

Orain arte gizartean maitasun erromantikoaren eta monogamiaren formula izan da ia bakarra, alegia, gertatu behar duena da noizbait pertsona bat ezagutzea (lehentasunez gizon-emakume konbinazioan) zeinaz sakonki maiteminduko garen, harreman bat hasiko dugun eta berarekin bizitza guztia igaroko dugun, beste horrelako harremanen "beharrik" gabe. "Behar" horiek agertzen badira, tentazioak edo bizioak edo ahulguneak bezala hartuak izan dira. Formula hau ez jarraitzeak porrot kutsu bat dauka, mutil-neska zaharra, buru-arin, libertino... bezalako mailaketekin sistema jarraitzen ez zuten pertsonetikiko. Gizarteak monogamia onartuta dauka, filmek eta ipuinek irudi hori sendotzen dute eta nola ez, erlijioak santuki bermatzen du formula hori.

Zorionez jende asko dabil onik egiten ez dieten formulei alternatibak bilatzen eta garatzen. Azken aldian han eta hemen dabilen harreman modua da "poliamor" formula, nik euskaratuta "askotariko maita-



suna" deitu dudana, baina ziur aski hobeki itzuli beharko dena. Ez naiz gaian batere aditua baina oso interesgarria egiten zait. Uste dut "poliamor" izena entzunda agian aurreneko inpresioan "denak denekin" ero baten ideia eman dezakeela, baina uste dut sakonean benetako sentipenen garapenari erantzun ahal diola, gure benetako barne errealitateak errespetatuz, ondorioz besteek errespetatuz ere.

Dakidan apurraren arabera, askotariko maitasunak dio pertsona batek beste batekin baino gehiagorekin batera izan ditzakeela harreman afektibo eta sexualak, beti ere argitasunaren eta zaintzaren ikuspegietatik. Harreman hauetan argia izan behar da, bakoitza non dagoen eta zertan dabilen argi utziz. Eta harreman bakoitza zaindu egin behar da, bakoitzaren momentuko emozioei

arreta jarritz, pertsona bakoitzaren beharrak errespetatuz.

Festibal batean ezagutu nuen askotariko maitasunaren praktikatzailer batek zioena gustatu zitzaidan. "Nik beste pertsona maite dut, ondorioz ez naiz bera aldatzen saiatuko nire beharretara moldatzeko. Maitasunaren adierazle, bere edozein erabaki errespetatuko dut". Norberak norbere burua entzutea eta errespetatzea ezinbestekoa ere da horrelako harremanetan, jakiteko bizitzen ari naizenak zenbateraino egiten didan mesede, zenbatetaraino ez... Hau adierazteko ere gai izan behar naiz.

Noski, harreman mota hauen helburua gaizki ulertua izan daiteke batzuetan, sexu harreman ugari izateko aitzakia bezala. Argi dagoena da hemen zentroan dagoena harreman dela, sexua horren adierazle bat gehiago delarik, baina, normalean, ez erdigunea. Bestalde, honek ez du esan nahi ere harreman anitzetan dabilen pertsona edo bikote batek momentu batean monogamia aukeratu ezin dezakeenik, bakoitzak ikusi eta erabaki behar du momentuan zer datorkion ongi.

Esan bezala, aldaketa garaia dela uste dut eta zintzoki bakoitzak egoki ikusten dituen bideak garatzeko eta ondorioztatzeko garaia. Harreman osasuntsuak gure garaiko gakoetako bat direla uste dut, beraz, bedeinkatuak honetara garamatzaten bideak. Ea hemendik hogeitau urtera zer pentsatzen dugun artikulu honetaz, bitartean, bideak bide, maitasun eta errespetu anitz adiskide!



Zabal

Eta Marten landareak landatzeko gai bagina?

Urriaren 30ean iGEM lehiaketan parte hartuko dute Nafarroako zortzi gaztek, tartean Saioa Ganuza lekunberriarrak. Biogalaxy proiektuaren bigarren fasea aurkeztuko dute Bostonen. Iaz Hodei Otegik parte hartu zuen.

Zenbait zientzia gai gure ulermenetik kanpo daudela iruditzen zaigu maiz eta espazioaz hitz egiten badugu, zeresanik ez. Bada, gaur egun oraindik ere gehiengoontzat pentsaezina den hori hamasei eta hemezortzi urte bitarteko ikasleen bitartez egikaritzea lortu dute Miren Karnele Gómezek eta Sarah García.

Bi urte daramatzate Biogalaxy proiektuarekin. Nafarroako Gobernuak bultzatzen duen Planeta Stem programak zientzia, teknologia, ingeniari eta matematikak sustatzea du helburu eta horren baitan sortu zen orain bi urte Biogalaxy proiektua. M. Karnele: *"Ikasle aurre-unibertsitarioen talde bat osatu eta iGEM lehiaketan aurkezteko aukera proposatu ziguten. iGEM Massachusettseko Institutu Teknologikoak antolatu ohi duen biologia sintetikoko mundu mailako lehiaketa bat da, urtero Bostonen egiten dena. Iaz espainiar estatuan bigarren hezkuntzako ikasleekin osatutako lehen taldea izan ginen iGEM lehiaketan parte hartzen".*

Proiektuaren zati handi bat Iruñeko Planetarioan egikaritu bada ere, alde praktikoena, Institutu Agrobioteknologikoko laborategietan burutu dute, Nafarroako Ikerketa Zientifikoen Goi Batzordeko (CSIC) zientzialarien laguntzarekin. M. Karnele: *"Ni Planeta Stem programako kidea naiz eta proiektu hau martxan jartzerakoan Paco Muñoz, Javier Pozueta eta Eurne Baroja zientzialarien laguntza izan genuen eta gaur egun eurak dira irakasle eta aholkularitza la-*



netan dihardutenak. Sarah berriz zubi lanak egiteaz arduratzen da goi mailako zientzialarien eta ikasleen artean”.

laz erronka berezi batekin eman zioten hasiera ibilbideari: Espaziora eramateko landareekin. Baina ez dira soilik espazioan landa daitezkeen landareak, baita giza elikadurarako interesgarria izan daitezkeen proteina ekoizteko gai direnak ere. Hori guztia biologia sintetikoaren bitartez lortu dute, hau da, bakterietan nahiz landareetan sar daitezkeen ADN zatietan organismoak moldatuz. Sarah: “Biologia sintetikoarekin organismoek modu naturalean egin ezin dituzten funtzioak eginaraztea lor dezakegu. Landare horretatik intereseko proteina modu errazean atera genezake espazioan, sukaldeko irabiagailu eta zentrifugatzailerik txiki bat baino ez genuke behar”.

lazko proiektua Lurretik 400 kilometrotara dagoen Nazioarteko Espazio Estazioko baldintzetara egokitu zen. Eta Biogalaxy proiektuarekin biologia sintetikoan landareen proiekturik onenaren saria jaso zuen Bostonen. M. Karmele: “Epaimahaiko kideek aurten proiektu hobetuarekin bueltatzeko gonbita egin ziguten eta oraingoan urrutirago joan gara, Martera”.

laz *Nicotiana benthamiana* landarea erabili zuten, tabakoaren familiako landare bat, hostoa handiak dituena. Hosto horiek ziren hain zuzen ere transformatzen zituztenak. Aurten aldiz, landare osoa transformatu dute, hazietatik hasita. Eta horretarako *Arabidopsis thaliana* landarea erabili dute, arlo zientifikoan oso



Goian M. Karmele eta Sarah dira Biogalaxy proiektuaren gidariak. Arg: Labrit.



laz Bostonen iGEM sariketa irabazi zuen taldea. Arg: Biogalaxy.

erabilia dena. Sarah: “Landare honen genoma osoa ezagutzen da, horregatik da horren erabilia. Baina guk eskuratu ditugun emaitza guztiak edozein landareekin aplikatu daitezke. Gure helburua etorkizunean Martera patataren landarea eramatea da. Izan ere, guk landareek izan ohi duten almidoia erabili ohi dugu landareek proteina sintetizatu dezan. Eta patata landare batek askoz ere almidoi gehiago dauka”.

Helburua iazko bera izan arren, aurtengoan Nazioarteko Espazio Estazioko baldintzak kontuan hartu beharrez Marteko baldintzetara egokitu behar izan dute. Besteak beste, Marteko luraren pH azidoa, grabitatea eta erradiazioa kontuan hartuta.

Nola dakigu fisikoki espaziora edo Martera eraman gabe bertan funtzionatuko luketela?

M. Karmele: Proiektu hauek nahi izanez gero bideragarritasuna izanen

lukete, badirelako programak hau egiaz espaziora eramatea ahalbidetuko luketenak. Baina horretan ez gara sartu.

Sarah: Intsulinareneko proteina ekoiztu dezan biologikoki moldatu eta horiek modu sinplean ateratzea lortu dugu. Eta Bostonen prozesu horren emaitzak aurkeztuko ditugu. Espaziora eraman ez ditugun arren, aski datu dauzkagu, eramanez gero funtzionatuko lukeela jakiteko.

M. Karmele: Interesgarria da batez ere jakinda zenbateko esfortzu ekonomikoa suposatu ohi duen hemendik espaziora gauzak igotzeak. Bertan modu errazean halako zerbitzu ekoiztu ahal izateak izugarri merkatuko luke.

Zortzi gaztek osatzen dute taldea...

M. Karmele: Proiektu serioa da, hau ez da azaroan Bostonen amaitzen den udaleku bat. Konpromiso handia



Landareak proteina ekoiztuaztea lortu dute biologia sintetikoaren bitartez. Arg: Labrit.

eskatzen du eta baita ingeles maila zehatz bat ere. Urtero taldea osorik berritzen da eta horretarako irakasleek konplizitatea bilatzen dugu. Berriak dira, euren ikastetxeko neska eta mutil bat parte hartzera inskribatzen dutenak. Nafarroa osoko ikastetxeko zortzi ikasle aukeratu dira. DBH-ko 4. mailan edo Batxilergoan dauden lau neska eta lau mutil.

Sarah: Ezagutza maila bat ere behar dute, batez ere Biologian. Bigarren Batxilergoan ere ematen ez diren kontzeptuekin egin behar dute lan.

Konpromisoa eskatzen duzue beraz...

Sarah: Nazioarteko lehiaketa bat da eta udako denbora osoa inbertitu behar dute honetan. Udan egunero etortzen dira, Sanferminetako astean eta abuztuko zubian izan ezik. Eta uda bukatzen denean larunbatetan elkartzen gara.

M. Karmele: Ezin dute huts egin, oso denbora gutxi dugulako lana garatzeko. Eta asistentzia ezak proiektua kolokan jar lezake. Euren ez dute ezer ordaintzen proiektu honetan parte hartzeagatik, baina ezagutza asko irabazten dituzte eta lehen mailako ikertzaileekin lan egiteko aukera dute. Gainera, iGEM-en parte hartzea bizi osorako curriculum da.

Zer da gogorrena?

M. Karmele: Niretzat ikasketarik han-

diena zientzian dena lehenengo aldian ateratzen ez dela ohartzea izan da. Eta frustrazioak kudeatzen ikastea.

Sarah: Bai, nik ere uste dut hori dela zailena. Lan handia dago atzetik. Ez da soilik laborategira etorri eta lau astez pipeta artean ibiltzea. Izugarriko lana dago atzean. Bostonen aurkezteko poster zientifiko bat prestatu behar dute, webgune bat osatu, bertan eginen dute aurkezpena prestatu... denbora gutxian oso azkar ikasitako guzti hori ongi aurkezten ikasi behar dute.

M. Karmele: Laborategian lan egitea baino askoz gehiago ikasten dute. Informazioa eskatzen, komunikazioa kudeatzen, informatika, ekonomia...

Sarah: iGEM-ek batez ere partekatzearen balorea bultzatzen du. Zuk orain landare horrentzat sortutako zati bat hemendik bi urtera norbaitek beste proiektu baterako erabiltzen badu, ezin zara haserretu. Hori oso positiboa da, bai berarentzat eta baita niretzat ere. Egindako lana balioan jartzen baitu.

Marten halako landare bat landatzeko proiektu bat egiteko adina informazio al dugu gaur egun planeta horri buruz?

Sarah: Proiektu honetarako esku artean erabiltzen ari garen datu guztiak errealak dira. Egiaztatu daitekeen proiektu bat da. Horregatik informazio bilketa lan handia eskatzen du.

Nola daramazue aurtengo proiektua?

M. Karmele: Orain larunbatetan bakarrik elkar gaitzeko guztiok eta nekea ere nabaritzen hasiak dira.

Sarah: Baina astean zehar ere bakoitzak bere aldetik lan asko egiten dugu. Dagoeneko fase esperimentalarekin amaitu dugu eta emaitzen aurkezpena prestatzen gabiltza. Urriaren 30ean joanen gara Bostone-ra eta ordurako dena prest izan behar dugu. Proiektua irekita utzi dugu, ezinezkoa delako uda batean Marteko esplorazio osoa egitea. Ea hurrengo urtean hirugarren talde bat osatzerik dugun.

“Hasieran ez nuen ezer ulertzen”

Lekunberriko Hodei Otegik eta Saioa Ganuzak hamazazpi urte dituzte eta biek parte hartu dute Biogalaxy proiektuan. Iaz Hodei egon zen taldean eta aurten berriz, Saioa. Espazioarekin lotutako kontuak erakarrira onartu zuen proiektuan izen emate Hodeiek: “Nik uste dut nire esperientziarik hoberena izan dela. Gauza asko ikasten dira. Estatu Batuetara joaten nintzen lehen aldia zen eta esperientzia polita izan zen bukaerakoa ere. Baina azkeneko egunetan larri ibili ginen dena prestatzeko”.

Saioari beti gustatu izan zaizkio biologia eta bestelako zientziak. Hasiera gogorra egin bazitzaion ere orain gustura dabil, azken lanak amaitzen. Saioa: “Maiatzean, hasi ginenean, Batxilergoko lehen maila amaitu berria nuen eta bigarren batxilergora arte Biologian ez da gehiegi barneratzen. Lehenengo saioetan BioBrick eta plasmidoei buruz hitz egiten hasi zitzaizkigunean ez nuen ezer ulertu, baina laborategian praktikarekin ulertzen joaten zara. Bostonen defentsa egin behar dugu eta edozein gauza galdetzen ahal digute, baina hamar minututan egin genuen prozedura txikiena ere, ho-

rregatik dena kontrolpean eraman behar duzu”.

Bien kasuan zer ikasi nahi duten argitzeko balio izan die esperientziak. Hodei zientzietatik letra mistoetara pasa zen, eta bideojokuen diseinu eta ekoizpenarekin lotutako ikasketak egin nahi ditu. Saioari laborategia uste baino gutxiago gustatzen zaiola ohartzeko balio izan dio. Gustorago ibili da proiektuaren beste zati batzuetan. Biokimika beharrean matematikako ikasketak egiten ditu ziurrenik.

Aurten, diru bilketa egiten ari dira Biogalaxy proiektuko aurkezpenean ekipaturik joateko. Horretarako oihalezko poltsa batzuk jarri dituzte salgai. Hodei edo Saioaren bitartez eskura daitezke. Saioa: “Proiektua Nafarroako Gobernuak babesten duen arren, guk ere gure alea jarri nahi genuen. Gainera, kontziente gara gure planetan hondatzen ari dela eta jendea plastikozko poltsak ez erabiltzeko kontzientziatzea lagungarria izan daiteke. Ea horrela ez dugun nahitaez Martera bizitzera joan beharrik!”. Diru bilketaren zati bat proiektu ekologisetarako bideratuko da.



Hodei Otegi eta Saioa Ganuza salgai jarri dituzten oihalezko poltsarekin. Arg: Labrit.

BASERRI HANDIA SALGAI



Ikusi Idealistan: 948 23 13 13

- Etxarri Larraun.
- Porlanezko bi solairu eta ganbara.
- Toki zoragarrian eta etxaurre egokiarekin.

ETXEA SALGAI




- Etxarri Larraun.
- 2 Etxebizitza bakoitza bere saiferarekin.
- 2 Familiarentzat egokia.
- Lursaila etxebueltan.

948 23 13 13 Ikusi Idealistan:

ASTITZ

Udazken honetan Mendukilora bueltatzeko aukera ederra!

Urritik abendura bitarte hainbat ekitaldi antolatu dituzte Mendukilo Kobetan. Urriaren 26an eta azaroaren 30ean, 10:00etatik 12:00etara familiei zuzendutako misteriozko bisitak eskainiko dira. Sorgin baten laguntzaz Aralarek gordetzen dituen pertsonaia mitologikoak ezagutzeko aukera izanen da eta parte-hartzaileek eurek egindako amuletoa etxera eramanen dute. Urriaren 5ean, 17:00etatik 19:00etara, Iñaki Perurenaren Harriaren Bakarriketaz gozatuko dute bisitariak. Eta urriaren 28an berriz, Saguzarren Gaua ospatuko da, 18:30etik 23:00etara. Animatu eta egin zure erreserba: 948 39 60 95 telefono zenbakira deituta.



LEKUNBERRI

Urriaren 20an klima aldaketari buruzko antzezlanak eskainiko dute Kantinan

Trokolo antzerki taldeak "Bertan kasu egin edo banoa" antzezlanak eskainiko du urriaren 20an Lekunberriko Kantinan. Ikuskizunak klima aldaketaren gaia lantzen du. Klina eta Klin doktoreek gaixo dagoen Lurra sendatzeko modua bilatu beharko dute.

LEKUNBERRI

Mitxauseneak Lekunberriko I. Argazki Lehiaketa antolatu du

Lekunberriko natura gaitzat hartuta, bertako natur elementuak islatu beharko ditu argazkiak: landareak, zuhaitzak, sua, zerua, animaliak... Baina denek antzemangarria den Lekunberriko txokoren batean ateratakoak beharko dute izan eta azalpen txiki batez lagundu beharko da argazkiaren aurkezpena.

Aurkeztutako zenbait argazkirekin Udalak egutegi bat kaleratzea aurreikusten du. Hiru argazki onentzako bertako produktuekin osatutako saskiak izanen dira. Argazkiak urriaren 21etik azaroaren 14ra bitarte aurkeztu beharko dira. Eta honako ezaugarri hauek bete beharko dituzte:

- Jpg edo png formatuan aurkeztu beharko dira. Argazkiek gutxienez 300 pixel beharko ditu izan.

- Parte-hartzaile bakoitzak gehienez bost argazki aurkezteko aukera izanen du.

- Argazkiak kolorean nahiz zurri-beltzean izan daitezke.

- Argazkiak formatu digitalean bidali beharko dira mitxausenea@yahoo.es e-postara. Eta egilearen datuak (izengoitia, izen-abizenak eta telefonoa) berriz Word dokumentu batean bidaliko dira.



Salmenta publiko zuzena prezio ezin hobean
Ordutegia, 9:00etatik 13:00etara eta
14:30etatik 17:00etara



BACALAO ELKANO S.L.

Industrialdea, 11
31870 Lekunberri - Nafarroa
Tel.- 948507319 Fax.- 948604792
bacalaoselkano@jet.es
www.bacalaoselkano.com

ARAITZ

Urriaren 27an III. Araizko Zaporeen Azoka eginen da Arriben

Hirugarren urtez Araitzen ekoiztutako produktuak baserri eta etxeetatik Arribeko plazara aterako dituzte datorren urriaren 27an. Fruituak, barazkiak, jogurtak, gaztak, gurinak, marmeladak, ogiak, apaingarriak... Goizeko 10:00etatik aurrera, bertatik bertara zer ekoizten den ezagutu eta erosteko aukera izanen da. Azokaz gainera, goizean zehar gazta eta taloak egiten ikasteko tailerrak izanen dira eta zaldi gainean bueltatxoak emateko aukera. Eguerdiko 13:00etan bestalde, Joseba Urretabizkaia argazkilariak eta Alvaro Bermejo idazleak kaleratutako "Aralar, artzain eta jentilak" liburuaren aurkezpena izanen da.

Eta aurten berritasun gisa sagar postre lehiaketa ere izanen da. Beraz, ekarri sagarrekin egin ohi duzun postre goxo hori eguerdiko hamabiak baino lehen eta bi lagunentzako afari ederra irabazteko aukera izanen duzu!

Azokaren aurretik ordea beste bi hitzordu antolatu ditu Araizko Zaporeak Elkartek. Urriaren 17an, Araizko udaletxean, bi ekoizle txikik euren esperientzia eskainiko dute eta hilaren 24an aldiz, Nafarroako Unibertsitate Publikoak Araitzen egindako ikerketa lanaren emaitzak kaleratuko dituzte.

ALLI

Albiasuarrek kontzeju-etxea inauguratu dute

Hemendik aurrera Albiasuko Kontzejuak eta herritarrek batzarrak eta bestelako bilera eta beharretarako balio-garria izanen den etxea inauguratu zuten joan den abuztuan. Nafarroako Artzapezpikua eta hainbat herritar elkartu ziren irekiera ekitaldian.



LEKUNBERRI

XV. Nafar Sagardo Eguna ospatu da Lekunberrin

San Migel egunean ospatu zen joan den hilaren azken igandean Nafar Sagardo Eguna. Lekunberriko plazan, Nafarroako Sagardogileen Elkarteko bost ekoizleren sagardoa dastatzeko aukera izan zuten bertara hurbildu zirenek: Aldazko Martintxonekoa, Lekarozko Larraldea sagardotegikoa, Lesakako Lindurrenbordakoa, Berueteko Behetxenekobordakoa eta Lekunberriko Toki Alai sagardotegikoa. Gainera, ohi bezala Baztango Kirikoketalariek sagarren txikitzearen eta prentsatzearen erakustaldia egin zuten eta helduek ez ezik txikienek ere lehen zuku hori probatzeko aukera izan zuten. Aurtengo uztaren emaitza dastatzeko ordea, urtarrilera arte itxaron beharko dugu.



FESTAK

Jaiez beteriko hilabetea joan da

Abuztuko azken asteburuan ospatu zituzten Atallun herriko jaiak. Eskualdeko aizkolariek eskainitako saioarekin eta festetan izandako txapelketetako sari banaketekin eman zioten amaiera jaiei. Irailaren bigarren asteburuan berriz, Intzan umeentzako jokoak, toka txapelketa eta herri kirolak izan zituzten besteak beste. Allin ospakizun egun bakarra izan zuten arren, goizetik hasita zer gozatua izan zuten. Eguerdian herri bazkaria egin zuten eta arratsaldean antzerkia eta magia izan ziren protagonistak. Etxarrin eta Arruitzen ez ziren falta izan urteroko etxez etxeko errondak eta txikientzako puzgarri eta jarduerak. Irailari, Uitziko eta Baraibarreko pestekin eman genien amaiera. Inoiz baino eguraldi hobearekin ospatu zituzten sanmigelak. Eta urrian sartuta, bertan ditugu Lekunberriko Pilarika Jaiak. Urriaren 9tik 13ra bitarte ospatuko dira (Egitarau osoa Agendan).

ALLI



BARAIBAR



INTZA



ETXARRI



ATALLU



UITZI



Antsoenea
BASERRIKO GAZTA

948 513 468
www.antsonea.com
Uztegi (Araitz)

INFORMATIKA ARALAR
LEKUNBERRI - ARAITZ
LARRAUK
JALMENTA ETA KONPONTZA

634 551 743
infoaralar@gmail.com

AUTOZERBITZUA - ARRAINDEGIA - HARATEGIA -
PATXI GALARZA
Astelehenetik larunbatera
8:00 - 14:00, 17:00 - 20:00
Igande eta jaiegunetan
8:00 - 14:00
Irurtzun

SAN MIGUEL
Taberna-Jatetxea
Arribe
948 51 31 34



Hiru lasterketa Plazaola Bide Berdean

Joan den irailaren 15ean Plazaola Bide Berdean antolatutako IV. Maratoian eta XIII. Maratoi Erdian korrika zeharkatu zuten korrikalariak Lekunberritik eta Leitzatik hasi eta Andoainera arteko tartea. Aurten, 42 eta 26 kilometroko lasterketez gain, 10 kilometroko lasterketa egiteko aukera ere eskaini zen, eskaintza zabaltze aldera eta proba handietan esperientzia ez duten korrikalariak erakartzeko. Andoainen bertan prestatutako ibilbide zirkular batean egin zen probarik motzena.

42 kilometroko maratoian Mikel Rodriguez (2:26:32), Ion Sola (2:34:10) eta David Palomo (2:35:10) izan ziren gizonetako azkarrenak. Eta emakumeetako berriz, Aitziber Martin (3:08:49), Eva Garcia (3:14:53) eta Eva Esnaola (3:16:07) sailkatu ziren lehen hiru postuetan. Maratoi erdian, Anabel Eleno (1:48:31), Maider Lasa (1:51:34) eta Lide Azkue (1:53:07) helmugaratu ziren lehenak. Eta gizonetakoan, Roberto Carlos Trejo (1:27:30), Andrew Mcleord (1:27:56) eta Alejandro Reina (1:30:18).

Saski paregabea, txanpon baten truke

Aurten ere dotore-dotore jarria dago Larraun Pilota Elkartean saskia. Betiko lekuan, jakina, Artxueta harategian, Lekunberrin. Diseinatzaileek bestelako ukitu bat eman diote, hiru mailatan antolatuta, eta ez dabil beste konturik Larraun ibarrean: sekula baino ikusgarriago dagoela. Harategitik ateratzen diren neska-mutikoak ez dira ados jartzen: ardo botilak 10 direla esaten du batek, beste batek ezetz, berak 9 zenbatu dituela... Saskia etxera eramango duenari ez dio buruhauste handirik sortuko botila baten gorabeherak. Akaso, nahiago 9 izatea, non sartu behar du bestela hainbeste gauza kolpean!

Larraun Pilota Elkartetik txoko hau erabili nahi dugu eskerrak emateko saski eder hori osatzen lagundu diguten guztiei: haraneko saltoki eta enpresei, bere produktuak musu truk eskaintzeagatik; Pilota eskolako gurasoei, produktu guztiak bildu eta saskian txukun-txukun jartzeagatik; Artxueta harategiari, beti bezain prestu uzteagatik bertan saskia jartzen; ikasleei, etxez etxe ibiltzeagatik txartelak bati eta besteari salduz; eta herritarrei ere bai, jakina, txartelak erosiz babes emateagatik gure proiektuari. Denon artean, jarrai dezagun pilotaren alde lanean, eta luzaroan egon dadila saski eder hori Artxueta harategian ikusgai!

Hostal Betelu

Eguneko menua,
karta, plater
konbinatuak eta pizza
goxoak

Etorri eta
on egin!

Erreserbak:
948513026
618557889

AMAIRU bar

ETXKO PIZZAK,
KOPA BERGIZIAK

948504352

LAGUNDU MAILA
LAGUN

Mailopeko bazkidea
izan nahi duzu?
mailope@labrit.net

LARRAUN GARABI ZERBITZUA 24 ORDUZ
MEKANIKA ETA ELEKTRIZITATE TAILERRA

Gruas y Talleres LARRAUN S.L.

Lekunberriko industriagunea,
21. nabea
31870 Lekunberri
Nafarroa

Mugikorra: 626 494 356
Telefonoa: 948 507 229
Faxa: 948 507 281
gtlarrapun@gmail.com

137 korrikalari Intza-Ttutturre Kilometro Bertikalean

17 emakumezko eta 120 gizonezko lortu zuten Ttutturreko tontorrera iristea. Joan den irailaren 14an izan zen Intza-Ttutturre Kilometro Bertikalearen 3. lasterketa. Aurten inoiz baino parte-hartzaile gehiago izan dira, izan ere, Nafarroako eta Euskal Herriko kopak baitzeuden jokoan aurtengo edizioan. Goizeko hamarretan eman zioten hasiera probari eta 3 kilometro eta 850 metroko igoerari aurre egin behar izan zioten.

Emakumezkoetan, Maite Etxezarreta izan zen azkarrena 47 minutu eta 53 segundorekin. Atzetik eta euren artean oso alde txikiarekin igo ziren Maite Zabaleta (00:48:24) eta Ainhoa Lendinez (00:48:32).

Gizonezkoetan berriz, Iban Muruak 36 minutu eta 45 segundotan lortu zuen tontorra zapaltzea eta bigarren eta hirugarren postuetan sailkatu ziren Iñigo Alzola (00:37:42) eta Aitor Ugarte (00:37:53).

Eskualdeko korrikalarietako dagokienez, 13 iritsi ziren helmugara. Aurtengoan ere emakumezkoetan ez dugu bertako emakumezkoarik izan.

Informazio gehiago eskuragarri: www.intzattutturrekb.eus/



ESKUALDEKO KORRIKALARIEN DENBORAK:

Isaac Álvarez	00:42:18
Iñigo Lasarte	00:44:13
Xabier Satrustegi	00:44:57
Xabi Azpirotz	00:45:48
Imanol Kañamares	00:46:59
Alfontso Etxarri	00:47:27
Luis Mari Larreta	00:48:37
Joseba Igartua	00:51:55
Aitor Etxarri	00:52:46
Ander Zulet	00:55:18
Oihan Igoa	00:56:34
Iñigo Garaioa	00:58:39
Ander Mikeo	01:04:19





 **ALIPROX**
Lekunberri
janaridenda
hamabostaldi
eskaintza bereziak

Iñigo Garaioa
MARGOLARIA
 696 658 288
LEKUNBERRI

**AURRERA
TABERNA
ARALAR, 15
948 60 47 24**

**TAXI
SOROA**
609 168 217
Bederatzi plaza

IORTIA LI. INCA DIBITAL - HORTZ KLINIKA
Juanjo Gaitte García · Odontologoa Kol. Zokia. 317
Estitxu Telleria Elorza · Odontologoa Kol. Zbkia. 591
Lekunberri: 948 604 804 - 618 818 005
Altsatsu: 948 467 603 - 667 66 17 69
ODONTOLOGIA OROKORRA · INPLANTEAK ·
ORTODONTZIA · HORTZ-ESTETIKA · PADI

Hitzaspertuan



●● Agurtzane Altuna

Kera

Tankera, orrazkera, jazkera, ibilera, pentsakera... asko izan dittezteke –erak. Nolabatteko antzekotasune eakusten duenak. Ze ikusi, hue ikasi itte omen da, ta halaxe da gañea. Kera hoitako asko ingurukoan eraiñez garatzen joandakoak izaten dee, eta beste asko, berriz, berezkoak o halaxe ateatzen zaizkiunak. Attunan atealdik, atteen eantzute zakarra ta ondorena gozoa; amaan senti-beratasune; amonan pazientzie; atteen aldeko senidean nagikerie ta amaan aldeko senidean garboa, esate bateako.

Hoik denak barrungo kerak izan dattetzeke, baño oskolan kanpoko kerak? Hoi lanak emate'azkiun kanpoko kera horrek! Denak etxeako nahi ta noski, beitzeion begien araberrakoa tankera. Obsesioa izatea, ta batipat jaioberritan, umeak katalogatzekoa.

–“Ume honek zeñen kera do?”-. Amaana esango'o batek eta atteen igoal-igoala hurruna besteak. Tira etxeako tantoa!! Amaan begik batek eta atteen kopeta besteak. -Uiiii...igoal-igoalak bi senideak, nahiz ta txurie izan bata eta beltza bestea. Tira beste alde tanta! –Bai, bai...ama holakoxekoa zen ttikitan! Baita zea re, ume hau dena beste aldekoa da!

Beste batzuek berriz, umeak ttikitan denak igoalak izaten deela esaten due; haik eztiela bate tankerik ematen. Ume guzik igoalak nola ba?? Jarri ehun ta berea beitture bakarrakin biixiko luke amak; ehun buruko artaldean ardiek axurie nola, amak umea hala.

Udazkenean sartu berrik gea baño loraldi bete-betea gauda gurean; Araitzen bai bintzet. Oain aña gerri-buelta lori ez giñun aspaldi ikusi eta poza emate'o, egie esan. Bejondeizuela! Batzuk tankera emango ziñien dauneko ze hiru galdera izaten deen klabeak holakotan, mundu guzik galdera berak itte baititto: zer da, neskatoa o motikoa? Ta ze izen jarriozue? Ta inportantena, ume honek zeñen kera do? Ta benga berrize mus partida. Tantoa honea ta kera harea; kera harea eta tantoa beste alde.

Ni ez naiz sekule oso ona izan antza hartzeko kontu hortan, baño amaan tripeen tankera ikusita seuro esango nuke loraldi hontako bat bintzet Otamen-ditarra izangoala!

BIZI JAIK BERDINTASUNEAN



LARRIALDIK



Nafarroako  Gobierno
Gobernua de Navarra

INFORMAZIOA

016
ATENCIÓN A VÍCTIMAS DE
MALOS TRATOS POR VIOLENCIA DE GÉNERO

Lau ibilbiderekin ireki dute Beigorri Abentura Parkea

Joan den hilean inauguratu zuten Lekunberriko Beigorri Abentura Parkea. Herriko hariztian 2003. urtean sortu zen parkea. Hiru urte itxita eman ondoren, Lekunberriko Udalak parkea berritu eta berriro ere irekitzea lortu du. Horretarako Nafarroako Gobernuak, Cederna Garalur Elkarteko eta 2014-2020 Landa Garapeneko Programaren diru-laguntza izan du. 78.688,71 euroko inbertsioa egin da eta %60 diru-lagundutakoa izan da.

Gorka Azpiroz alkateak egunean bertan nabarmendu zuen bezala, Nafarroako turismo eskaintzan erreferente izan da eta kanpokoentzako ez ezik, bertakoentzako ere gune interesgarria. Lekunberriko Udalak Izadi Aventura enpresari esleitu dio parkearen kudeaketa. Lorena Etxarri lekunberriarra izanen da kudeatzailea. Eta egunerokoan bertako bi lan-

gile arituko dira ere, Eider Irastortza eta Bingen Begiristain.

“Zuhaitzak gehiago errespetatu eta babestuko dira orain”

Parkearen berritze lanez arduratu den David Del Olmok azaldu zuen parkea berritzeko erabili den teknologia berritzaileari esker, zuhaitzak gehiago errespetatu eta babestuko direla eta parkea are eta seguruagoa bihurtu dela.

Lorena Etxarri: *“Bere garaian halako oso parke gutxi zeuden, orain geroz eta gehiago irekitzen ari diren arren. Baina, Lekunberrikoa berriro ere berritzailea izanen da. Linea jarraia-*

ri esker, erabiltzaileek ez dute eusten dien sokaren menpe ibili beharko. Txirrika bakarra dauka eta hasieratik bukaerara kable bakarretik ibiliko da. Erabiltzaileentzako seguruagoa da”.

Guztira lau ibilbide eskainiko dira. Inoiz ibili ez diren helduentzako eta txikiarentzako 50 metroko ibilbide bat egonen da. Sei joko eta 13 metroko tirolina dauka. Lau urtetik gorako edonork izanen du bertan ibiltzeko aukera.

Bigarren zirkuitua 125. metrokoa da eta bederatzi zubi ezberdin eta 20 eta 40 metroko bi tirolina dauzka. Hirugarrenak aurrekoak baino zailtasun handixeagoa du eta 87,64 metrokoa da. Eta azkena tirolinen zirkuitua da. Lorena: *“Zubiak pasatzeko abilezia handirik ez dutenentzat edo gustatzen ez zaienentzat egokia da eta tirolinez gozatzeko aukera ematen du. Hiru zir-*





kuitu horiek egiteko gutxienez 1,40 metroko altuera izan dezatela eskatuko dugu. Nahiz eta gurasoekin datozen haurren kasuan eta lurretik bada ere euren begiradapean badaude, 1,30-1,35 metroko altuera duten haurrei ere igotzen utziko zaie”.

Egiturak ez daude lehen bezain altu. Erabakia zuhaitzak babesteko hartu zen eta baita erabilera errazteko ere. Izan ere, parkeko langileak lurretik saiatuko dira goian dagoenari laguntzan eta horretarako komunikazioa bermatzea ezinbestekoa izanen da.

Lorena: “Adin txikikoek heldu batez lagunduta etorri beharko dute beti, nahiz eta ez den beharrezkoa izanen helduak ere igotzea. Dena den aisialdirako jarduera interesgarria izateaz gainera, helduentzako ere zuzenduta dago, kontzentraturik egoten, zubiak partekatzen eta beldurrak kudeatzen ikasten baita. Horregatik helduak ere probatzera animatuko nituzke”.

Aste Santutik azarora bitarte irekita egonen da Beigorri Abentura Parkea. Asteburuetan publiko orontzat eskainiko da zerbitzua eta astez eskola eta taldeentzako. Hori bai, beharrezkoa izanen da beti aurrez erreserba egitea.

Informazio gehiago:
beigorria@izadiaventura.com
izadiaventura.com / 621 237 942.



ekin
 rotulacion
 948 85 32 79

SAN MIGUEL
 gasolindegia
 Xabier Garmendia 629 350 099
 Arribe-Atallu

tanatorios
IRACHE
 Betidanik
ALTSASU - IRURTZUN
 LEKUNBERRI - BETELU - LEITZA
 LOREAK, HILARRIAK, ESKELAK,
 ERRAUSKETAK ETA ZERBITZU OSAGARRIAK

24 ORDUKO TELEFONOA
 • 948 19 70 70 •
www.tanatoriosirache.es

CARPINTERIA HNOS. AZPIROZ, S.L.
 ZURGINTZA OROKORRA
 INDUSTRIALDEA 15- LEKUNBERRI
 Telefonoa eta Faxa: 948507343
carpinteria@carpinteriaazpiroz.com

OGI-BERRI ALTZA
 Aralar kalea, 41
 Lekunberri
OGI BERRI
 OKIN ARTISAUAK 948604884

HEMEN DIRA BERRIRO ERRIGORA SASKIAKI!

Errigoraren *Nafar hegoaldeko uzta euskarari puzka* kanpaina ate joka dugu.

Jakingo duzue honezkero, baina, labor azalduta, AEK, Sortzen eta Ikastolen elkartearekin elkar-lanean egiten dugun kanpaina honetan Nafarroa hegoaldeko produktuez osatutako saskiak eskaintzen ditugu Euskal Herriaren luze-zabalean.

Aurten berrikuntzekin gatoz, bi saski izan beharrean hiru saski eskainiko ditugu:

- Beltza (klasikoa) 50 euroren truke.
- Berdea (ekologikoa) 60 euroren truke.
- Zuria (Berezia) 70 euroren truke.

Auzolanari esker, jasotako diruaren %25 bertako euskalgintzari bultzada ematera bideratzen dugu.

Urriaren 30etik azaroaren 20ra izango da aurtengo edizioa.

Aurki eskaerak egiteko puntuak kaleratuko dira. Egon adi!

IRAGARKITAILA

**NEKAZARITZA, INDUSTRIA ETA ERAIKUNTZA
ARLOETAKO HORNIGAIK
BURDINDEGI ETA BRIKOLAJEKO TAILERRA**

URZUBI S.A.

Tel. 948 50 42 41 Lekunberri
Fax 948 60 45 20 urzubi@hotmail.com

urrutia
enea

etxeko hestekiak

LEKUNBERRI

OTXOTORENA
okindegia

ARRIBE

ADII! TLF BERRIA:
948 51 30 32

TAXILON

661 202 249
(9 plaza)

E-posta: lotamendi5@gmail.com Atallu - Araitz

Lontxo
Otamendi
Artola

panaderia okindegia

GALBURU eco

Egurrezko laboreko ogi ekologikoa

Alde Zaharra 50 LEKUNBERRI 31870
948 50 40 42

LEKUNBERRIKO FESTAK - URRIA

9 | ASTEAZKENA:

12:30	Meza.
14:00	Jubilatuen bazkaria Ayestaran Hotelean. Ondoren, musika.
17:00	Pilota.
18:30	Artaldea kalejira, Irurtzungo Iskidi Taldearen eskutik.
20:00	Txupinazioa. Ondoren, Iraunkorrek txaranga.
20:05	Zezen suzkoa.
22:30	Gazte afaria karpan.
00:00	Trikidantz. "Zapiaren joko". Oixani.

16:30	Puzgarriak.
17:00	Atsalde On! DJ Mairenen eskutik Aurrerako terrazan.
17:00	Erremontea eta pilota.
18:00	Gazte olinpiadak karpan.
18:00	Mus Txapelketa Jubilatuetan.
19:00	Xaibor Disko Festa.
20:00	Zezen suzkoa.
22:00	Guateke afaria Ayestaran Hotelean eta ondoren musika.
22:00	Zurrakapotea eta bokatak karpan.
00:00	Gozategi. Laiotz. Oixani.

10 | OSTEGUNA:

09:00	Diana.
11:00	Haur Krosa udaletxean.
13:00	Patata Tortila Lehiaketa.
14:30	Herri bazkaria. Bingoa eta Denok Kantatzera.
17:00	Jostailu Gabe Jolastu!
17:00	Txapel jaurtiketa.
17:00	Pilota.
17:00	Atsalde On! DJ Mairekin Aurrerako terrazan.
17:00	Poker Lehiaketa Jubilatuetan.
18:00	Batule Batukada, Aralar Kanpinetik hasita.
19:00	Pintxo Eguna.
20:00	Zezen Suzkoa.
21:00	Gau tematikoa: "Pijama Gaua".

12 | LARUNBATA:

09:00	Diana.
11:00	Meza.
12:00	Ezpelur Erraldoi Txikiak.
12:00	Larraun-Lekunberri Kantuz.
13:00	Aizkolariak.
15:00	Trial 4X4.
17:00	Atsalde On!
17:00	Nesken pala eta esku pilota.
18:00	Tirikitrauki Dantza Taldea.
20:00	Zezen Suzkoa.
20:05	Bertsolariak: Sustrai Colina, Eli Pagola eta Igor Elortza.
23:00	Niarawa Batukada. Mikel Sevillano.

11 | OSTIRALA:

09:00	Diana.
10:00	Artea Kalean. Margolanak, natura eta sormena. Garbitokiaren inguruan.
12:00	Suziri txikia eta 2018an jaiotako haurrentzako zapi banaketa.
12:15	Puzgarriak Alde Zaharreen.
12:15	Gazteentzako Mendi Bizikleta Anfiteatroan.
14:00	Kalderete Lehiaketa karpan.
14:00	Ajoarriero Lehiaketa karpan.
14:00	Gaztetxoentzako bazkari autogestionatua garbitokian. Eta ondoren, ginkana.

13 | IGANDEA:

09:00	Diana.
11:00	Meza.
11:30	Ardoaren Eguna.
11:30	Puzgarriak eta Txu-txu Trena.
12:00	Kalejira.
13:00	Aizkolariak.
16:30	Puzgarriak eta Txu-txu Trena.
17:00	Pilota Partida Profesionalak.
20:00	Zacatecas Mariatxiak.

AGENDA

MERAKTU TXIKIA

SALGAI

Pisua salgai Sarrigurenen. 90m2-ko etxebizitza, bi garaje eta trastelekua. Harremanetarako: 676 090 928.

EROSTEKO

Land Rover Defenderra erosiko nuke, berdin dio ze egoeratan dagoen: ITV gabe, matxuratua, kolpearekin... Jarri harremanetan: 623 179 537.



HEMEN DIRA! ¡ESTÁN AQUÍ!

*Irailatik azarorarte
De septiembre a noviembre*



NABARREKO

NADA QUE AÑADIR

PIPER ERREAK ETA GARBIAK. PIMIENTOS ASADOS Y LIMPIOS

BERRIOGOITI-BERRIOSUSO

Hortalizas Etxeberria

Astelehenetik ostiralera De lunes a viernes

8:30-14:00 / 16:00-20:00

Larunbatetan Sábados

8:30-14:00

Eskaerak eta informazioa

Pedidos e información

654 352 271

HERNANI

Galarreta frontoiko aparkalekuan

Aparcamiento del frontón Galarreta

Astelehenetik igandera De lunes a domingo

9:00-20:00

Eskaerak eta informazioa

Pedidos e información

656 434 660